

Medikuak zigortu langileen eritasunak lanarekin lotzeagatik



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Langileen urteotako eskubide galerak baditu eraginak haien osasunean ere. Besteren artean, enpleguen baldintzei lotutako gaixotasun asko geratzen direlako oker diagnostikatuta. Esku-lana horretan ere merkeago atera dadin, patronalak gero eta gehiago sartzen du muturra lan-medikuen jardueran. Gero eta zabalagoa den manipulazioa Frantzia azaleratu da, Dominique Huez doktorea patronalaren eskariz Medikuen Elkargoak zigortu duenean.



Dominique Huez doktore erretiratuak, uxer baten bisita jaso zuen maiatzaren 10ean, epaitegiek agindutako enbargoak exekutatzen dituen funtzionario beldurgarriarenak, alegia. Huez hogeita hamar urtez lan-mediku aritua zen Chignon (Frantzia) herriko zentral nuklearean. Bere eta emaztearen bi kotxeak bahitzera zetorren funtzionarioa, 1.000 euroko zigor bat pagatzeari uko egiteagatik.

2016ko irailean Medikuen Elkargoko diziplina batzordeak kondenatu zituen Dominique Huez eta Bernadette Berneron medikuak 1.000na euro pagatzera Orys konpainiari, Frantziako argindar ekoizle nagusi den EDF erraldoiaren azpikontrata. Zigorrik txikiena ezarri zieten, baina Huez doktorearentzako 1.000 euro horiek ez pagatzea ohore kontua da.

2011n salatu zuen medikua Orys konpainiak, honen ekipoko soldatzaile-galdaragile gaixotu bati idatziz zertifikatu ziolako bere eritasuna lan-baldintzei lotua zegoela, aipatuz nagusien tratu txarra. Langileak irabazi egin zuen auzia *prudhometan*. Hegoaldeko euskaldunek ezagutzen ez duten *Prud'homme* delakoa lan-auzitegi berezi bat da, erdi eta erdi sindikatuek eta patronalak izendatua, eta bertan ebatzen dira obrero eta ugazaben arteko gatazka asko, epaile profesionalen osatutako beste lan-epaitegiatar iritsi gabe.

Prudhometek Orys kondenatu zuten langileari 20.000 euroko kalte-ordainak pagatzera bere nagusiek erabilitako

jazarpen moralagatik. Zentral nuklearretan azpikontrata lanak egiten dituen Orysek onartu zuen zigorra eta, gainera, langilearekin adostu zuen kontratua etetea 80.000 euro gehiagoren truke.

Baina ondoren, Orysek usinako medikua salatu zuen Medikuen Elkargoaren aurrean, argudiatuz kode deontologikoa urratu zuela langileak patologia depresiboa zeukala eta hori enpresako tratu txarrari lotua zela idatziz emateagatik. Elkargoaren diziplina batzordearen aurrean, lan arloko psikiatrian izen bat baduen Huez doktorea defenditu zuten zenbait profesional ospetsuk. Haien harridura azaldu zuten Huez doktoreari egindako pertsegizioagatik, lan-mediku baten lana denean gaixoak kontatzen dion minari zentzu bat aurkitzea, kasu honetan lan-baldintzen testuinguruan.

SNPST Lan Osasuneko Profesionalen Sindikatuak ohartarazi zuen Medikuen Elkargoa patronalaren morroi bihurtzeko arriskuaz, lanbide eritasunen gaian ororen gaintik gaixoen osasuna defenditu behar duten medikuak babesik gabe utziz ugazaben aitzinean. Epaiketako azken hitzean, Huezek esan zuen: "Hamabost suizidio ezagutu ditut Chignon zentral nuklearean. Aipatzen dugun langilearen kasuan, bere buruaz beste egiteko arriskua ikusi nion. Nire ahalegina izan zen gaixo honi laguntzea gertatzen zitzaiona ulertzen, jakin zezan ez zegoela errotuta".

Huez eta Berneronen kondenetan ikusten denez, enpresek aurkitu dute

medikuei eskuak lotzeko zirrikitua. Ohikoa da langile gaixo bati medikuek zertifikatu edo ohar bat egitea haien arazoa lan afera batekin lotuz. Idatzi arruntak dira, gaixoa bidali dion beste medikua-arentzako edo gaixoarentzako berarentzako eginak. Baina gaixootako batek idatzi hori aurkezten badu lan auzitegian, orduan nagusiek presio egiten diote medikuari idatzia alda dezan, bestela Medikuen Elkargora jotzeko mehatxuz.

"Mediku batentzako –esan dio Dominique Huezek *Nouvelle Vie Ouvriere* aldizkariari– diziplina batzordearen aurrean aurkitzea sekulako lotsaizuna da, hondamendia. Horregatik gero eta gehiago dira atzera egiten duten medikuak, diagnostikoa aldatzeko prest daudenak, eta gero eta gutxiago dira diagnostikoekin aurrera jarraitzeko ausardia dutenak. Patronalak ondo antolatutako operazioa da, garbi salatu behar da".

Azpikontratzea nagusi den garaiotan

Huez doktoreak medikuen elkargoek plazaratutako albisteetatik kontabilizatu ditu berearen antzeko 11 zigor 2013 eta 2016 artean. Frantziako patronalak zenbat salaketa jarri dituen jakitea ez da erraz. Huez urtean 100 salaketa inguru ateratzen zaizkio batean eta bestean arakatur aurkitutako albisteetatik, baina ziurrenik askoz gehiago izango dira, gehienetan medikuek beldurragatik atzera egiten baitute eta diagnostikoa aldatzen: "Arazook medikuek lotsa han-



Guillaume Le Bauberen argazkian, Bernadette Berneron eta Dominique Huez medikuak, Frantziako Medikuen Elkargoak zigortutakoak. Berneronek esan zuen bere defentsan: "Nire jardueran ohartu naiz ni bezala lan-medikuntzan ari diren sendagile asko mehatxatuta daudela hain zuzen beren eginkizuna zuzen betetzeagatik. Baina, horra, lanaren eta osasunaren arteko lotura egitea, horretan datza alor honetako medikuen ofizioaren muina".

diz bizitzen dituztenez, ez diote inori ematen horien berri. Eta gainera mediku asko elkargoaren aurrean defenditzen dira abokaturik gabe!".

Huezen kasua dela eta, "Patronalaren eta Medikuen Elkargoaren arteko konplizitatearen kontra" agiria plazaratu dute lan-medikuntzako elkarte, sindikatu eta mugimendu sail batek, salatuz dinamika honek denok kaltetuko gaituela. Medikuek eta hauen lan ona, dudarik gabe. Baina baita langileak ere, "galdu baitezakete lan istripuen eta gaixotasun profesionalen aitorza eta kalte-ordain eskubidea". Eta herritar guztiak ere bai.

Aurrerago diote: "Guk, mediku eta langileok, ofentsibara pasatu behar dugu. Egunero jabetzen gara lan antolaketak langileon kontra darabilen bortizkeriaren ondorioez: garaia baino lehenagoko heriotzak toxikoekin jardutearen ondo-

rioz, lanbideagatiko psiko-patologiak -lan gaixotasunen katalogoetan onartu gabe daudenak-, gihar eta hezurretako lesioak loturik daudenak lan erritmoak bizkortzen dituen *management* basati eta inhumanoari...".

Ez da kasualitatea Huez doktorearen buruko minak zentral nuklear bateko azpikontrata batek eragitea. "Lan bat zenbat eta arriskitsuago orduan eta gehiago azpikontratatzeko da", ohartarazi zuen ordurako mediku ezaguna zenak 2008an *L'Humanité* egunkariak egindako elkarrizketa batean.

Azpikontratatzearekin merkataritza-zuzenbideak gaina hartu dio lan-zuzenbideari. Lan bat hasieran antolatzen duena gero eta urrunago dago hori aurrera atera behar dutenetatik, ataza baten prestaketa teknikoa egiten dutenek apenas dakite ezer gero hura aurrera

atera behar dutenen baldintza zehatzez. Azpikontrata, berriz, galtzen dira hainbat lan txiki partzialetan, mantenimenduetan ari direnek apenas dute aurretik egindakoen ez informaziorik, ez metatutako esperientziarik. Sarritan esperientzia gutxien daukaten obreroen gain joango dira lanik arriskutsuenak.

Konpainia handientzako hiru abantaila handi dauzka azpikontratatzeko, dio Huezek. Bat, esku lana merkatu. Bi, konpainiaren langileek onartu nahi ez dituzten lan kutsagarrien kontratuetan sartu. Hiru, konpainiek antolaketan aldetik dauzkaten muga deserosoak hautsi, arazoak besteri pasatuz. "Ugazabentzat tentagarria da lan-medikua bihurtzea enpresaren estrategiaren agente". Oihaneke legea nagusitzean, mediku zuzenak lekuko gogaikarriak bihurtu dira patronalarentzako. ■





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




50 urtez elkarrekin